



XXV. Eskolarteko Kirol Jokoetan, 1.615 gazte

TOLOSA ▶ Hego Euskal Herriko gazteak ariko dira hurrengo bi asteburuetan, Usabal kirolegian

MODALITATEAK ▶ 18 kiroletan lehiatuko dira 13 eta 14 urte arteko 750 neska eta 865 mutil ▶ 3

TOLOSA ▶

«Aisian euskaraz egiteko», bi jardunaldi

Lehena, gaur, arraunari buruz ▶ 2



Emakumezko txirrindulari onenak lehiatuko dira etzi Zizkurkilgo II. Sari Nagusian

ZIZURKIL ▶ Eskualdeko Arantzazu Azpirozek, Ainhoa Pagolak, Udane Sarasolak eta Maria Altunak hartuko dute parte proban ▶ 5

LEITZA ▶

Leitzan izanen du gaur tarteko helmuga Nafarroako Itzuliak

Nieve eta Sagastibeltza ari dira ▶ 7

ALEGIA ▶

Bidegorria dagoeneko erabili daiteke

Alegia eta Ikaztegieta lotzen ditu ▶ 4



Eztiola baserria, atzo. N. URBIZU

BIDEGOIAN ▶

Eztiola baserriak su hartu du

Bizilagunak onik atera dira ezbeharretik ▶ 5



Diseinuan eta kreazioahalmenean oinarritutako heziketa

■ **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95
20008 Donostia
Gipuzkoa
Tel: 848 910 873
Fax: 843 910 875
www.ceinpro.es

EUSKARA ▶

Kirolari buruzko bi jardunaldi «aisian ere euskaraz egiteko»

Lehenengoa gaur izango da, arraunari buruz, Usabalen 19:00etatik aurrera



Iñaki Arratibel eta Onintza Lasa, herenegun, aurkezpenen. N. L.

NOELIA LATABURU

«Euskara eguneroko bizimoduaren arlo guztietan normalizatzeko» erronkari eutsiz, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak, Iñaki Arratibel kirol medikuaren babesarekin, bi jardunaldi antolatu ditu «aisian ere euskaraz egiteko». Iñaki Arratibel eta Onintza Lasa herenegun aurkeztu zituzten, hain zuzen ere, jardunaldi hauek udal aretoan.

Lehenengoa gaur bertan jo-

rratuko dute Usabal kirolgunean, 19:00etatik aurrera. Arrauna izango dute mintzagai Iñaki Arratibelek berak eta Julen Eraustinek. Entrenamenduetarako egokia den hizkuntza landuko dute, bai eta umeekin egin daitezkeen indar entrenamendu interesgarriak ere. Bestalde, planifikazio egoki baten gainean jardungo dute, entrenamenduetatik hasi eta sanjonetako estropadetara. «Ez zaizkit errezetak ematea gustatzen, beraz, oso alde praktikoa

izango du lehen jardunaldi honen», azaldu zuen Arratibelek.

Eta bigarrenak, ekainaren 15ean garatuko dutena, elikadura aztertuko du, txirindulartzaren barruan. Aurrekoaren ordu eta leku berean, Iñaki Arratibelek eskainiko du ikastaro modukoa, non garaian garaiko elikadura egokia azalduko duen. Batetik, eguneroko elikadura nola antolatu irakatsi nahi du medikuak, eta bestetik, 4 eta 6 egun arteko lasterketatan zer eta nola jan.

Azken jardunaldi honen helburua da «kirolariak berak ikas dezatela, entrenatzaileek kontrol egokia eraman dezatela eta gurasoek ere jaki dezatela» elikadura egokia eramanen. Jendearen parte-hartzea bultzatzea dute xede; izan ere, «ez dugu pisutsua egin nahi: batetik, euskara jorratzea nahi dugu, eta bestetik, formakuntzarako lagungarria izatea».

Galdetegi batean oinarrituta

Iaz burutu zituzten kirol jardunaldi batzuetan eginiko galdetegi batean oinarritu dituzte datozen egunotan antolatu dituzten jardunaldiak. Hala, bertan parte hartu zuten artean

ONINTZA LASA

EUSKARA ZINEGOTZIA

«Kirolaren alor tekniko guztiak ere euskaraz lantzea da jardunaldi hauen helburu nagusia»

IÑAKI ARRATIBEL

MEDIKUA

«Hizkuntza aldetik kirolean dauden beharrak jorratu nahi ditugu, euskararako eta formakuntzarako»

beharrak aztertu zituzten. «Gure hitzari eutsiz orduko emaitzekin antolatu ditugu jardunaldiak», azaldu zuen Lasa. Halaber, kirolaren ingurukoak euskaraz jorratzea posible dela azaldu zuen, eta «helburua horixe» izango dela gaineratu.

Kirola eta euskara uztartze-lanak aurrera jarraituko duela ziurtatu zuten biek ala biek agerraldian. «Besteak beste, iaz bezalaxe liburu berri batean ari gara lanean».

MEREKATARITZA ▶

Igarondo Merkatarri Elkarteak erosketatxekeen zozketari ekin dio

Ekainaren 17ra bitarte erosleek 300 eta 600 euroko txekeak lortzeko aukera izango dute

N. LATABURU

Igarondo Tolosako Merkatarri Elkarteak promozio berri bati ekin dio egunotan, zeinak elkarteko denda guztietako bezeroen artean 600 euroko eta 300 euroko erosketatxekeak zozketatzea duten helburu. Aipatutako zozketa honetan parte hartzeko hainbat baldintza zehaztu dituzte elkarteko kideek.

Astelehenean hasi zen promozioa eta ekainaren 17ra bi-

tertean, elkarteko kide diren komertzioek bere bezeroei txartel bana emango diete erosketa egiten duten bakoi-tzean. Bezeroak, bertan, bere izena, herria eta telefona idatziz beharko ditu txartelan eta dendan aurkituko duen postontzian utzi beharko du.

Ekainaren 21ean, berriz, sari-erri zozketa egingo dute eta bildutako txartel guztien artean bi aukeratuko dituzte; sari-erri irabazleei telefonoz deituko zaie sariaren berri emateko.



Aurreko zozketako irabazlea. HITZA

Hala, pertsona hauek 600 euroko eta 300 euroko erosketatxekeak, hurrenez hurren, aurreroko ekainaren 30a baino lehen gasta ahal izango dituzte, beraiek nahi duten Igarondo Tolosako Merkatarri Elkarte-kideen dendetan.

GIZARTEA ▶

Udako ludotekan begirale izateko deia

Bihar da curriculuma bidaltzeko azken eguna, Galtzaundiko helbidera

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak uztailaren 3tik 31ra bitarte ludoteka antolatuko du 3 eta 10 urtera bitarteko haurrentzat. Begirale lanetan aritzeko izena emateko epea bihar itxiko dute. Interesatuak kultura@galtzaundi.com helbidera bidali beharko dute curriculuma.

ZINE-KLUBA ▶

Zine-klubaren proposamenaren aurkezpena bihar

Zine-kluba antolatzen duen taldeak proposamen berezia luzatu behar du. Bihar aurkezpen ekitaldia burutuko dute, Kultur Etxeko 2. solairuan, 20:15etik aurrera. Deialdi irekia egin dute eta, beraz, herritar guztiak gonbidatuta daude bertara.

ARGINDARRA ▶

Tolargik argi mozketak egingo ditu egunotan

Bere bezeroei zerbitzu hobetua emateko helburuz, Tolargi instalazioetan hobekuntza eta mantentze lanak egiten ari dela eta hurrengo egunotan argindar mozketak egingo ditu Tolosan. Datorren astelehenean, 08:05etik 12:30era, Erremontari kaleko 24, 26, 28, 30, 32, 34, 36, 38, 40 eta 42 zenbakietan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berstegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaro-zko dispen.: 672637
- ▶ Asunzioz Klinikak 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leiztaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLA ▶


Eusko Jaurlaritzako, Kutxako eta Foru Aldundietako ordezkariak, aurkezpenean. E. EZEIZA

1.615 gazte bilduko dira XXV. Eskolarteko Kirol Jokoetan

Hego Euskal Herriko 13 eta 14 urteko ikasleak 18 modalitatetan ariko dira hurrengo bi asteburuetan

ESTI EZEIZA

Atzo goizean, Donostian aurkeztu zituzten Euskadiko XXV. Eskolarteko Kirol Jokoak. Eusko Jaurlaritzak antolatuta, Foru Aldundien, Nafarroako Ikastolen Elkartearen, Kutxaren eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, Hego Euskal Herriko 1.615 gazte Tolosan bilduko dira hilaren 27an, 28an eta ekainaren 3an.

Aurten jokoak Tolosako Usabal kirol instalakuntzetan egingo dira nagusiki; eta baita Ordizian, Majori Kiroldegian (tenisa) eta errugbi zelaian. Euskadiko XXV. Eskolarteko Kirol Joko hauetan 20 kirol modalitate ezberdinen infantil mailako Euskadiko Txapelketak egingo dira. Otsailean eta maiatzean kros eta judo modalitateak jokatu eta gero, Lasarten eta Tolosan, hurrenez hurren. Denera, 13 eta 14 urte bi-

1615 GAZTE ▶

	Nesak	Mutilak
Mahai tenisa	28	28
Futbola	30	80
Saskibaloia	48	48
Herri kirolak	125	125
Areto futbola	36	48
Xake	21	31
Esku pilota	18	24
Aletismoa	116	133
Eskubaloia	56	56
Tenisa	6	6
Gimn. erritmikoa	74	
Txirindularitza	8	61
Boleibola	24	
Kanoa	20	40
Igeriketa + waterpolo	137	150
Erregbia	3	35

tarteko 750 neska eta 865 mutil lehiatuko dira, eta lurralde bakoitzeko kirolari eta talde irabazleak, amaieran, Tolosan ariko dira aurrez aurre. Ikasturtean zehar ikasle gazteek

burututako kirol ekintzak azken ekitaldi honetan amaituko dira. Gurutz Larrañaga Sailburuordeak aurkezpenean adierazi zuenez, «Eusko Jaurlaritzaren eskumena da eskola kirolaren oinarriak eta printzipioak kirol diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzea». Hori dela eta, «kirola heziketaren zutabe da, eta eskola kirolaren zutabe nagusia eskolako ikasle heziketa garapena osatzea da, kirolari bakoitzaren betebeharrak asetuz».

Bestetik, Andoni Imaz Tolosako zinegotziak, Udala ordezkatzu, gonbidapena luzatu zuen, «egun hauek aprobetxatuz Tolosa ezagutzeko». Aldi berean, gaineratu zuen «Tolosako Udalak kirolaren inguruan egiten duen apustu sendoa». Honez gain, argitu zuen instalakuntzan izandako arazoak konponduta daudela dagoeneko, eta erabiltzeko prest.

MUSIKA ▶

Banda Bassotiren zuzeneko Bonberenean

'Asi es mi vida' disko berria aukeztuko dute italiarrek, bihar, gaueko hamarretan



Banda Bassotti talde italiarra, kontzertu batean. HITZA

E. EZEIZA

Bihar gaueko hamarretan galdu ezineko zita prestatu du Bonbereneak. Banda Bassotti Italiako taldeak kontzertua eskainiko du maiatzeko ekitaldien barruan.

90. hamarkadaren hasieran, Negu Gorriaken eskutik etorri ziren lehendabiziko aldiz Euskal Herrira. Eta geroztik, makina bat alditan etorri dira hona. Oraingoan, bi kontzertuko bira eskainiko dute: lehenengo emanaldia Tolosara izango da, eta bigarrena Bilbon, Zorrotzako Gaztetxean ostiralean eskainiko dutena.

Taldea sortu zenetik 20 urtekin gora igaro badira ere, beraien filosofia eta leloak berdin jarraitzen du: «Egiten ditugun gauzetan onenak izatea eta ehuneko ehun ematea beti». Langile eta komunisten ideiak bultzatuz, langileen kontra dihardutenekin ez dute ezer jakin nahi, eta giro ezker-tiarrean dago beraien eremua.

Orain dela zortzi urte taldea desegin bazen ere, 2004ean berriro martxan jarri ziren. Itzulera honen arrazoia Negu Gorriak taldearekin zuen konpromisoa izan zen. Galindoren

afera irabazi eta gero, garaipena ospatzeko, elkarrekin, kontzertu bat ematea hitzartu baitzuten bi taldeek.

Disko berria

Eraikuntzako langileekin osatutako musika taldeak Euskal Herriarekin lotura handia du, honen adierazgarri, azken diskoa, *Asi es mi vida*, Andoaino Garate estudioetan grabatu dute. Erromatar hauen estiloarekin jarraituz, kantu zaharrekin osatutako lan berri honetan abesti ia guztiak borroka dute ardatz. Beren bizitzetaz hitz egiten du diskoak, hortik izenburua. Bertan, langile eta komunisten ohiturez hitz egiten dute, borroka egiten dutenez, hain zuzen.

Taldekideten esanetan, «mundutik zehar bidaiatzen du disko berri honek, Txiletik abiatzen da, Victor Jararen hitzetan, ondoren Nicaragua doa, ondoren Kubatik igarotzen da, Irlandatik, Euskal Herriatik, geroago 36. urteko Espainiatik, Italiatik, Alemaniatik, Errusiatik... Disko internazional baten aurrean gaudela esan dezakegu». Ska, rock eta punk estiloko musika egiten dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
 19:00ak arte hartzen dira
 Telf.: 943 65 56 95
 tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ALEGIA ▶ HIRIGINTZA

Erabiltzeko prest dago bidegorria



Alegia zeharkatzen duen bidegorria amaitu egin dute, eta bertatik ibiltzeko prest dago. N. URBIZU

Otsaila aldera hasitako obrak bukatu dituzte, Alegia Ikaztegiarekin lotuz

NEREA URBIZU

Alegian otsaila aldera hasitako Bidegorriko obrak ia bukatu egin dituzte. Badirudi ez dagoela amaituta, normalean bidegorriak bi karril izaten ditu, margo zuriz bereiztuta; baina Alegiakoak ez du hori izango, bidegorriak, dagozkion neurriak errespetatzen baditu ere —2,30 metro—, estuegia geratuko litzatekeelako.

Hasiera batean bizikletak eta

oinezkoak ibiltzeko bideak errepide nagusitik joan behar zuten, baina horrek bidean zehar dagoen aparkalekua kentzea suposatuko zuenez, Udalak herrian barna joatea proposatu zuen.

San Juan kalera desbideratuta dago, hortaz, bidegorria. Ikaztegieta aldera joaten da bidea, eta espaloiekin elkartzen denean bukatu egiten da. Oro-tara, 2 kilometro eta erdi ditu gutxi gorabehera.

Tolosarekin lotzeko proiektua ere badago, baina horretaz beste departamentu bat arduratuko da.

Hasierako asmoa, errepidea

Hasiera batean, errepidea konpontzea izan zen helburua: ia 10 metroko zabalerakoa egin zuten, eta 7 metro-tara estutuz, bidegorria egiteko aukera zegoela ikusi zuten, eta horrela egin zuten.

Oraindik ere errepideetan obrak topatzea posible izango da, hodiak eta azpiegiturak egiten ari direlako herrirako, eta trabatu egin dezake leku batzuetan.

Dena dela, erabiltzeko prest dago bidegorria, lehengo asteetik aurrera. Alegiatik Ikaztegi-tara, hain zuzen ere.

TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

207



BIDEGOIAN ▶ EZBEHARRA



Eztiola
baserriak su
hartu du

N. Urbizu ▶ Bidegoiango Eztiola baserriak atzo arratsaldean su hartu zuen. Suhiltzaileen lana zaildu egin zen, ondoko errekan urik ez zegoelako. Baserriko bi bizitzetara sakabanatu zen sua, eta teilatua kiskalita geratu zen. Bizilagunak onik atera ziren sutetik. N. URBIZU

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Emakumezko txirrindulari onenak II. Sari Nagusian

Euskalduna Trofeorako puntuagarria izango da proba

IMANOL GARCIA

Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, etzi bi ekitaldi izango dira: Zizurkilgo Nesken II. Sari Nagusia eta Gazteen Eguna. Atzo aurkeztu zuten txirrindulari neska onenak bilduko dituen proba Marian Lazkano alkateak, Patxi Altuna probako antolatzaileetako batek eta Ainhoa Larrea teknikariak. Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan, eta Euskalduna Trofeorako puntuagarria izango da proba hau. 16:00etan hasiko da Joxe Arregi plaza ondotik, eta bertan izango du helmuga.

Proba hau bultzatzeko arrazoia emakumezkoen txirrindularitza laguntzearena da. Lazkanok azaldu duenez: «Txirrindularitzak esfortzu handia eskatzen du, eta emakumezko txirrindulariek laguntza gehiago behar dute aurrera egiteko».

Hiru mailatan lehiatuko dira: elite, junior eta kadeteak. Elite mailan UCI Pro Tourreko Bizkaia-Panda taldeak parte hartuko du, nazioartean aritzen diren txirrindulariekin. Bertako kide da Arantzazu Azpiroz berastegiarra. Tolosaldeko bi taldek ere parte hartuko dute. Tolosa CF taldean, eskualdeko txirrindulari hauek ariko dira: Ainhoa Pagola tolosarra (elite maila), Udane Sarasola anoetarra (junior maila) eta Maria Altuna zizurkildarra (junior maila). Belca taldetik Irene San Sebastian tolosarra (kadete



Tolosa CF taldeak parte hartuko du etziko proban. I. ASENSIO

maila) ariko da. Bestalde, Euskal Herriko zein inguruko taldeek parte hartuko dute.

Gazteen Eguna

Etzirako ere Gazteen Eguna antolatu du Kostata Gazte Asan-

bladak. 10:30ean hasiko dira ekitaldiak, esku pilota txapelketarekin. 12:00etan futbol partida egingo da eta 16:30ean mus txapelketa. Filma ikusteko aukera 19:30ean izango da eta musikaren txanda, berriaz, 22:30ean izango da.

Tolosaldeko Telefono Listin berria egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Comunicacion** eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure lazko portada, ez nahastu!

Hala ere, bertan publizitatea egin nahi badezu, **943214141/439200887/439200898** deitu dezakezu.

6x0 HIPOTEKA > GO

Sei hutsari ezetz aurkitu hau bezalako hipoteka bat

%0 ko interesa lehenengo 6 hilabetetan **gainerako epean: Euribor+0,55**

Irekitze komisioa: %0,50
Amortizazio Aurreratuaren komisioa: %0
Kitapen Aurreratuaren komisioa: %1
Epea: 40 urte
Zenbatekoa: Tasazio-balioaren %80a arte

U.T.B. adibidea: **%3,401**

2006-03-23ko BOEn argitaratutakoaren arabera, urtebeteko Euriborraren azken indizea (%2,914) oinarri hartuta kalkulatu da 25 urterako maileru batentzat.

Eskaintza horretaz baliatu ahal izango dira 36 urte baino gutxiago dituztenek EAEn eta Nafarroan 2006-06-30a arte.

Euskadiko Kutxak gazteen alde egin duen apustua

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

RBE nº: 1885/06

IBARRA ▶ SAN INAZIOKO JAIAK

Festa giroa nagusi, bihartik igandera, San Inazio auzoan

Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte hiru egunetan: tortilla lehiaketa, toka, haur jokoak, sokatira, aizkolariak, musika...



laz bezala, aurtien ere dantzarien saioa eta tortilla lehiaketa eta pintxoaren dastaketa egingo dute. I. T. / D. G.

SAN INAZIOKO JAIAK ▶ EGITARAUA

Bihar gauean hasi eta igande iluntzera bitarte festa giroa izango da San Inazio auzoan. Adin guztiei zuzendutako askotariko ekitaldiek osatuko dute egitaraua.

BIHAR

20:00. San Inazio auzoko jaien haiera ohiko txupinazoarekin.
22:00. Berbena DJManurekin.

ETZI

10:00. Haur jaialdia.
11:00. Toka eta xakea.
12:00. Tortilla lehiaketa eta pintxoaren dastaketa.
18:00. Meza.
18:30. Txaranga.

19:00. Sokatira Ibarroko taldearekin (neskak eta mutilak).

22:00. Berbena Tukan musika taldearekin.

IGANDEA

09:30. Diana herriko dultzaineroen eskutik.
10:30. Txaranga.
12:00. Jabier Elorriaga eta Unai Otaño aizkolariak nor baino nor ariko dira. Trikitilariak eta bertsolariak alaituko dute saioa.
14:00. Txaranga, trikitilariak eta bertsolariak alaituriko herri bazkaria.
18:30. Jaien amaierako petardo sorta.

INIGO TERRADILLOS

Festa eta jai giroa izango da asteburuan Ibarroko San Inazio auzoan; izan ere, bihar hasi eta igandea bitarte San Inazio jaiak izango baitira.

Bihar emango diote hasiera festari ohiko txupinazoarekin, eta gauean jarraituko du jaiak berbenarekin. Larunbatean, berriz, auzotar guztiek parte hartzeko moduko ekitaldiak prestatu dituzte, haurrentzako jokoak, toka eta xakea, tortilla lehiaketa... Sokatiran ere ariko da Ibarroko taldea, eta amaitzeko, ostiralean bezala, Tukan musika taldearen doinuek alaituko dute gaua.

Igandean goizeko dianak adieraziko du festara joateko unea iritsi dela. Ondorengo txarangaren ostean, aizkolariaren saioa izango da, eta amaitzeko musikak eta bertsok hartuko dute auzoa. Azkenik, iluntze aldeko petardo sortak adieraziko du aurtengo San Inazio jaien amaiera.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Vito CDI 110. 2002. urtekoa. Kanpinerako prestatua. Interesatuak deitu 685 72 50 53 zenbakira.

IBARRA ▶

'Gerra zibila Euskal Herrian' gaur, Gaztetxean

Herritar talde batek Maiatza Gorria jardunaldiak antolatu ditu hilaren 31 bitarte. Egitarauaren baitan, gaur 19:00etan, Juan Ignacio Ramosek Gerra zibila Euskal Herrian hitzaldia eskainiko du Ibarroko Gaztetxean.

IBARRA ▶



Ostiraleko Pirritx eta Porrotxen ikuskizuneko une bat. HITZA

300 lagun Pirritx eta Porrotxen saioan

Pasa den ostiralean Pirritx eta Porrotx pailazoan Maite zaitut ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen Ibarroko Belabietako kiroldegian. Eta hala egin zuten joan ziren 300 lagunek. Gaztetxoak euren guraso nahiz aiton-amonekin joan ziren, eta ederki igaro zuten bi pailazoaren eta euren lagunaren istorioekin.

OREXA ▶

Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

Gaur izango du tutorearen bisita Orexako udaletxeko ganberan dagoen KZgunean. 16:00etatik 20:00etara izango da, eta tarte horretan, ohikoa den moduan, erabilitzaleek euren zalantzak argitu ahal izango dituzte.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera duzu weguneko Zeuk idatzi atalean.

TXARAMA ▶

Jaietako herri afarirako izen-ematea

Ekinaren 3an herri jai egingo dute Txaraman. Egundorretan afari herrikoia egingo dute, eta izena emateko azken eguna bihar izango da. Horretarako festa batzordekoengana jo eta 20 euro ordaindu beharko dira.

BERASTEGI ▶

Telelaguntza hizpide bihar Gaztainondon

Gaztainondo jubilatuen elkarteak, bihar, 18:00etatik aurrera, Kutxako ikasgelak antolatuta Telelaguntzari buruzko hitzaldia eskainiko du Silvia Camiok. Hitzaldi honen helburua adinekoen esku, euren beharrezko erantzuteko adituak direnekin etengabe harremanetan egoteko dituzten aukerei buruzko informazioa ematea izango da. Irudien bidez era didaktikoan egingo dute azalpena, eta solasaldirako utziko duten tarte partaideek dituzten zalantzak argitzeko baliatuko dute.

Andoainen administrazio lanak egiten dituen enpresa batek telefono bidezko kobraketa kanpaina bat egiteko langile bat behar du.

Eskatzen da:

- Telefono bidez eginiko lanetan (kobrantza, salmenta, bezero arreta...) eskarmentua izatea.
- Erabiltzaile mailako informatika ezagutza.
- Kontabilitate ezagutza izatea baloratuko da.
- Lehenbailehen lanean hasteko aukera izatea.

Eskaintzen da:

- Astelehenetik ostiralera 6 orduko lanaldia, 15:00etatik 21:00etara.
- 2 hilabeteko lana, emandako errendimenduari arabera luzatu daitekeena.

Interesatuak 10:00etatik 13:00etara deitu 943 30 43 35 telefonora maiatzaren 26a baino lehen.

NAFARROAKO TXIRRINDULARI ITZULIA ▶

Nieve eta Sagastibeltza ere tartean direla, Nafarroako Txirrindulari Itzulia bertatik

Bihar 4. etapa egingen dute, 135 kilometrotakoa, Altsasutik Donezteberako bidean; Leitza tarteko helmuga izanen du, taldea 16:30 aldera igaroko delarik bertatik



Biharko etaparen profilari erreparatu, 6 mendate ditu, itzuliko gogorrenetakoa eta erabakiorra. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Herenegun hasi eta igandean bukatuko den Nafarroako Txirrindulari Itzulia bihar igaroko da Leitza eta parte hartzen ari diren 112 txirrindularien artean hortxe dira bi leitzar ere: Mikel Nieve eta Iñigo Sa-

gastibeltza. Eta Luis Vicente ere hortxetik igaroko da, baina autoz, Azysa taldeko zuzendaria da-eta bera.

Horrela, biharko etapa Altsasun hasiko da 15:00ak aldera, eta 135 kilometro luzeren ondoren Donezteben bukatu. Baina bitartean, 6 mendate zehar-

katu beharko dituzte txirrindulariek, «itzuliko etaparik gogorrenetakoa» izanen omen delarik 4. hau: Altamira, Zuarrarrate, Uitz, Kaxeta eta Saldisera bi aldiz igo beharko dute—Leitzaletik zuzenean aurrena eta gero handik, Labaienen barrena, Doneztebera jaitsi ondo-

ren, atzera Leitza aldera etorri eta lehengo bide beretik igoz, bigarren aldiz; 17 km luzeko mendatea da—. Edozein moduz, Zuarrarrateko igoera izanen dute aldapatsuena, ia 400 metrotako altuera alde igoko baitute txirrindulariek, 7 km eskasetan, hots, batez beste %5eko malda igoko dute; 2. mailako mendatea da. Gogortasun honek Itzuliko podiumeko postuetan eragin handia izatea espero dute, «etapa hori erabakiorra izanen da», zioten atzo txirrindulariek ere. Euskal Herriko Itzuliko etapa bera da ere biharko hau.

Mendatez gain, tarteko helmuga bakarra izanen du Sakana eta Malerreka lotuko dituen biharko etapa honek: Leitza,

Herritarrek tropelean

Eta aspaldiko urtetan ez bezala, aurren Itzuli honetako tropelean bi herritar igaroko dira. Nieve, Caja Rural taldeko txirrindularia da, elastiko berde-duna, eta 24 zerbakia daramaki soinean; Sagastibeltza, berri, Lizarte taldean dago, elastiko urdina dute, eta 131 zerbakia daramaki. Biek hala biek ere, herrian aurreneko igarotzen ahaleginduko omen dira.

Sailkapenari dagokionez, astearteko etapako emaitzeri erreparatu, 2 ordu, 58 minutu eta 34 segundotan, Pachecok irabazi zuen Lizarte-Tutera (141 km) artekoa; Sagastibeltza 74. sartu zen helmugan, 04:23ra, eta Nieve 85., 07:42ra.

LEITZA ▶ XXVIII. KULTUR ASTEA

Gazteek aisialdirako tabernak beste aukerarik ote duten eztabaidatuz

Gaur, Malawi ezagutzeko aukera izanen dute; larunbateko afarirako txartelak salgai daude

J. ASTIBIA

Aste guztian zehar ikusgai da goen *Drogen inguruan zer? gazteak nondik nora?* erakusketa eszenatoki izanik, etzi iluntzean, «herriko gazteek aisialdirako tabernak besterik ba ote duten» eztabaidatu zuten, Prebentzio Programako arduradunak eta Askagintzako kideak eskainitako iritzi teknikoak tarteko, gazteak berak, gurasoak, hezitzaileak bildu ziren tertulian.

Bestalde, larunbatean Karrapean egitekoa den herri afarirako txartelak salgai daude Torrea eta Peritza tabernetan, 10 euroren truke. Aurretik Batugara-rekin kalejira den moduan, ondoren, Txarralde eta Khous taldeen kontzertua izanen da han bertan.



Tertuliakideen artean eztabaida bizi eta interesgarria eman zen. J. A.

XXVIII. KULTUR ASTEA ▶ EGITARAU

GAUR
20:00. Zineman, *Malawi bizikletaz*, Haitzol Olaitzekin.

BIHAR
15:00. Eskola-atarian, zirko

tailerra, Sebastopoleko Titiriteroekin.
20:30. Aurreran, *18/98 auzia: injustizia lege*, 18/98+ taldeko kideekin eta auzian inputatuekin.

LEITZA ▶

Bihar ohiko batzarra egingen dute udaletxean

ERREDAKZIOA

Bihar, 21:00etan, ohiko batzarra egingen du Leitza Udalak, eta ohiko puntuez gain beste 5 izanen dituzte eztabaidagai: 3. poligonoko 161. lurzatiari dagokion Hiritzintza Planaren aldaketa puntuala; Haur Eskolako bi hezitzaileen lanpostuak betetzeko lehiaketa egitea; lur-trukaketa bat; eta bakoitzak bere aldetik, LABek eta Larraín Herri Plataformak aurkeztutako mozioak.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaletxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.
Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 25a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. San Bartolome jaietako Koadrilen Eguna antolatzeko bilera. 20:00etan, Sendi-Ekintzan.
Tolosaldea. Galtzaundi Euskara Taldeak igandean Elorrioren izango den Ibilaldira joateko autobusa antolatu du. Izen-ematea, elkartean (Nafarroa et., 6. Tolosa).
Tolosaldea. Ezker abertzaleak deituta, *apartheid*-aren hirugarren urteurrena salatzen kontzentrazioak: Anoetan, 19:30ean, udaletxe aurrean; Amezketan, 20:00etan, udaletxe aurrean; Lizartzan, 20:00etan, udaletxe aurrean; Tolosan, 20:00etan, udaletxe aurrean.

HITZALDIAK

Ibarra. *Gerra zibila Euskal Herrian.* Juan Ignacio Ramosen eskutik. 19:00etan, Gaztetxean. Maiatza Gorria-ren baitan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Alegia. *Mongolia zaldiz proiektzioa,* Angel Cuerdoren eskutik. 19:30ean, Kultur Etxean. Kirol Astearen baitan.
Leitza. *Malawi bizikletaz* diapositiba emanaldia, Haitzol Olaitzen eskutik. Kultur Astearen baitan.

MUSIKA

Tolosa. Banda Bassoti. 22:00etan, Bonberenean.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Juan Carlos Tobio zuzendariaren *Lista de espera.* 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia M. I. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa.*
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
21:00-23:00. *Gau bero.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Gaztetxea koskortzen ari da

ANOETA ▶ Anoetako Gaztetxeak 7 urte bete ditu, eta urtemuga ospatzeko aste honetan hainbat ekitaldi antolatu ditu Gazte Asanbladak



Gipuzkoako inguruneak ezagutzen: mendi eskia eta eskalada izan zen ikusgai atzo Gaztetxean. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Pixkanaka Anoetako Gaztetxea ere koskortzen ari da. 7 urte bete berri ditu, eta urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gazte Asanbladakoek. Astelehenean ekin zieten ospakizunei, DVD emanaldiarekin. Asteartearen, gazteon bizi baldintzei buruzko hitzaldia eskaini zuen Duina-k. Eta atzo iluntzean *Gipuzkoako inguruneak ezagutzuten: mendi eskia eta eskalada* DVDa proiektatu zuten.

Etzi arte egongo da zer ospatzerik. Gaurko deia egin dute: «Udaletako *apartheid*-aren 3. urteurrena salatzen herriko udaletxe aurrean 19:30ean egingo den kontzentrazioa joateko dei egiten dugu». Bihar, ordu berean, «hileko azken ostirala izanik Etxerat-ek presoekin eskubideen alde deitzen duen kontzentrazioarekin bat» egingo dute. Gero txupinazoa bota eta sagardo dastaketa izango da. Gauean, musikak hartuko du Gaztetxea: Basaki eta Dirua taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean.

Etzi amaituko dira ekitaldiak: 12:00etan, entsalada eta tortila patata lehiaketa egingo dute eta, ondoren, bazkari legea. Bazkal ostean, jokoetan parte hartzeko aukera izango dute. 19:00etarako, gazte-triki poteoa iragarri dute, eta 20:30ean afaltzeko elkartuko dira Gaztetxean. Bertan, 22:00etan, Gazte Asanbladakoek prestatutako antzerki emanaldia izango da ikusgai. Eta, eguna amaitzeko, Txakurrak eta beste talde baten kontzertua, eta txirrikas.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Joanito eta Joxepa, Gaur 40 urte ezkondu zirela. Ibai eta Harkaitzen partetik, eta familia guztiairen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza

agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

itsas azoka 06
Maiatzaren 25etik 27ra

maiatzak 25 eguna
12. Orotan herrikoak eta erakundeak bere abarrikasunarekin.
13. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.
14. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

maiatzak 26 berikua
21. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

maiatzak 27 zapatua
22. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

23. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

24. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

25. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

26. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.

27. Orotan "Udaletako partekatu" esparruarekin erabiltzeko lekuak.